

Enpresagintza Fakultateak hitzarmen bat sinatu du Colombiako Mikroenpresekin

2010/06/04

Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultateak hitzarmen bat sinatu du Colombiako Mikroenpresekin, hauen garapena bultzatzeko.

Erakunde hau ekonomia lokala eta formakuntza lantzeko bideratuta dago. Hortarako, Enpresagintza Fakultateak ekintzailetasun eta berrikuntza indartzeko ekintza ezberdinak bultzatuko ditu. Hitzarmen Lander Beloki, Enpresagintza Fakultateko dekanoa, eta M^a Lucia Castrillon, Colombiako korporazioko gerenteak sinatu dute.

Hitzarmen honen ondorioz, Mondragon Unibertsitateak Ekintzailetasuna, Berrikuntza eta Asoziatibitatea formakuntza programa ezarriko du.

Mikroenpresako garapenerako Korporazioa, 1994an sortutako erakunde mixtoa da; mikroenpresak sendotzeko ekintzak martxan jartzeko sortua da.

Erakunde honek helburu gisa du Kolonbiar mikroenpresen produkzio hobekuntzarako laguntza ematea, zerbitzu sare baten diseinu, garapen, indartze eta koordinazioaren bitartez, herriaren enpresen garapenerako. Sozio instituzional (%73), erakunde pribatu (%15), eta erakunde publikoetaz (%12) osatua dago.

